



GIZARTE EKINTZA DOAKIEN **PERTSONEN** ERREALITATEAREN GAINEKO **MEZUEI** ETA **IRUDIEI** BURUZKO ORIENTABIDEAK ETA **GOMENDIOAK.**

2013KO ABENDUA

“Estilo oro hitz egiteko modu bat baino gehiago da: pentsatzeko modu bat da eta, beraz, inguratzen gaituen errealitateari buruzko judizio inplizitua edo esplizitua”.

OCTAVIO PAZ

Dokumentu hau Bizkaiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaian landu da. Laburpen-dokumentu bat da eta bertan daude jasota gizarte-ekintzaren hartzailerak diren pertsonen eta/edo beren egoerei (desgaitasuna, babesgabezia, bazterketa, mendetasuna edo arriskua) buruzko informazioa mezuen edo irudien bitartez helarazten duten pertsona, komunikabide, elkarte eta erakundeentzako oharrak eta gomendioak. Orain aurkezten den dokumentua generikoa da eta gizarte-ekintzaren edozein esparutan aplikatu daiteke. Dokumentu honen bertsio luzea hemen kontsultatu daiteke: www.bizkaia.net

KOMUNIKAZIO EKINTZA INGURATZEN ETA BULTZATZEN DUTEN PRINTZIBIOAK

Gizarte ekintzaren eremuan komunikazio ekintza eraginkor eta etiko baterako identifikatzen diren printzipioak.



DUINTASUNA

Pertsonak komunikazio helburuen aurretik jarri.



NORMALKUNTZA

Edozein pertsona desgaitasun, bazterketa, babesgabezia, mendetasun edo arrisku egoeran egon daitekeela erakutsi.



PARTE HARTZEA

Pertsonaren edo pertsona taldearen parte hartzea lortu komunikazio ekintzan.



PROFESIONALITASUNA

Egia eta haren komunikazio-funtzioa errespetatu.



BERDINTASUNA

Benetako mezu eta irudiak erabili, pertsona eta kolektiboak desberdintzea, baztertzea edo gutxiestea ekiditeko.

Era berean, komunikazioan genero berdintasunaren printzipioa aplikatu, zeharreko modu batean.

GIZARTE EKINTZAREN EREMUKO KOMUNIKAZIO EKINTZARAKO GOMENDIOAK

Gomendioak elkarrekin erlazionatuta eta komunikazio-ekintza orientatzen duen **osotasun** batean biltzen dira.

1 KONFIDENTZIALTASUNERAKO ESKUBIDEA

Pertsonen jakinarazi behar zaie beren datu pertsonalak jakitera emango direla edo beraien agertzen diren irudiak lortu eta zabalduko direla.

Era berean, pertsona horiei baimena eskatu behar zaie eta argazkiak aterako zaizkiela edo grabatu egingo direla jakinarazi behar zaie, eta beraien irudia agertzekotan, inork ez ezagutzeko moduan agertzeko aukera dutela esan behar zaie, halaber.

2 PERTSONAK BATEZ ERE PERTSONA GISA AURKEZTU

Norbanakoak edo kolektiboak aurkezteko “pertsona” hitza erabiltzea. “Pertsona” hitza egoera zehatza baino garrantzitsuagoa izan behar da. Horregatik, esango dugu pertsonak desgaitasuna, gaixotasun mentala... “daukatela” edo pertsonak mendetasun, bazterketa... “egoeran” daudela.

3 PERTSONAK BEREN TESTUINGURUAN ERAKUTSI

Gertatzen dena deskribatzeaz eta islatzeaz gain, gertaera testuinguruan kokatu behar da eta gertaeraren inguruko ezaugarriak eta faktore eragileak zehaztu behar dira.

Bestalde, eguneroko bizitzan pertsona guztiek hainbat testuingurutan parte hartzen dute. Eguneroko bizitzako egoera desberdinetan aurkezteak berdintasuneko egoera batean kokatzen ditu.

4 IKUSPEGI ERREAL ETA POSITIBO BATEKIN: EZ BIKTIMA EZ HEROI

Pertsonen errealitate osoa islatu behar da. Mugak, zailtasunak edo gabeziak ezkutatu gabe baina, era berean, gaitasunak eta potentzialtasunak adierazita. Ez dira biktima gisa islatu behar, ezta idealizatuta eta heroi gisa ere. Egoera bereziak aurkeztean, beste edozein esparrutakoak bezain “salbuespenezkoak” direla ulertu behar da.

5 PERTSONA AKTIBO ETA PROTAGONISTA GISA

Pertsonak gizarte-ekintzako programetan laguntza edo euskarrien hartzaile gisa bakarrik parte hartzen dutela dioen betiko ideiak ez du errealitatea erakusten. Gizarte-ekintzako prozesuek pertsonaren parte-hartze aktiboa eskatzen dute eta horrela ulertu eta nabarmendu behar da komunikazio-ekintzaren baitan.

Komunikazioak pertsona bakoitzak duen balioa eta gizarteari egiten dion ekarpena islatzeko balio behar du.

6 ESTEREOTIPOAK BAZERTU ETA AURREIRITZIAK EZ ELIKATU

Estereotipoak eta aurreiritziak ekidin behar dira. Aldatzeko zailak dira, azkar helarazten dira eta errealitatea sinplikatzeaz gain, bakoitzak dituen aukerak mugatu egiten dira.

Baztertu egin behar dira tratamendu partzialak, alarmistak, gupidagarriak, morbosoa edo errua leporatzen dutenak. Saihestu egin behar dira orokortzeak eta manikeismoak: pertsonen egoeren aniztasuna eta askotarikotasuna erakutsi behar dira. Ekidin egin behar dira normalizatzaileak ez diren irudiak eta topikoak.

7 ESKEMA BAZTERTZAILEAK ERREPRODUZITZEN DITUZTEN IRUDIAK ETA MEZUAK EKIDIN. LENGOAIA EZ SEXISTA ERABILI

Gizarte ekintza jasotzen duten pertsonen buruzko kanpaina eta albiste batzuetan emakumeak ikusezin bihurtzen dira edo protagonismoa ukatzen zaie, bai mezuetan bai irudietan. Genero estereotipoak ere erreproduzitzen dira, gizona ekintzaren erreferentziazko subjektu bakartzat joz, eta emakumea haren mendekotzat joz.

Lengoiaren tratamendua zaindu behar da, talde mistoak aipatzeko forma maskulinoak erabiltzean emakumeak ikusezin bihurtzen direlako eta bizitzako eremu askotan egiten dituzten ekarpenak ezkutatzeko direlako. Sarri askotan, horrela errealitatea itxuraldatzen da.

